



Debako gazteen kooperazio proiektua saharar errefuxiatuen kanpamenduetan

17 urteko 8 gazte gara eta 2015eko irailean, duela urte bat erdi, Saharako errefuxiatuen esparruetako proiektu solidario bat aurrera eramateko dirua lortzeko hasi ginen, astero-astero Gaztelekuan bilduz, bertako bezeroekin laguntzaz. Aurtengo Aste Santuan 10 egunetarako Saharara joatea da gure asmoa, Euskal Herriko Fronte Polisarioko ordezkariak antolatzen duen ELKARTASUN BIDAIA.

Duela bost urte gazte talde batek Gaztelekuarekin batera Saharara egindako bidaiaren harira etorri zitzaigun burura ideia hau. Bidaia hura oinarritzat hartuta, eta Aljeriako basamortuan babestuta dauden sahararrei laguntzeko asmoz, gure bidaia antolatzen hasi ginen, ekintza desberdinen bidez dirua lortuz.

Bertan bi proiektu burutu nahi ditugu: ur depositu berriak instalatu eta baratzetan lagundu.

Etxeetan ur depositu berriak instalatzea momentuan duten behar handienetako bat da, orain instalatuta dauzkaten deposituak guztiz herdoilduta, zulatuta eta kutsatuta daudelako.

Harrigarria dirudien arren, sahararrek urteak daramatzate basamortuaren erdian baratzak egiten. Jada, 900 famili-baratzak sortu dituzte. Honela, emakumeen nekazaritza eskolan lan egingo dugu.

Gure bidaiaren helburu nagusiak dira Saharako familien bizi-kalitatea ahal dugun neurrian hobetzea eta, era berean, pertsonak, bereziki emakumeak, proiektuaren garapenean parte har dezaten bultzatzea. Debarron kontzientziazioa sustatzea ere garrantzitsua dela iruditzen zaigu, Saharako kanpamenduen egoera zein den adieraziz eta herritarrek inplikatzuz.

Hau guztia dela eta, herritarrok laguntzera animatzen zaituztegu: anbulatorio eta ospitaletarako elementuen eta eskola



materialen bilketa bat antolatuko dugu (beheko koadroan zehaztu dugu beharrezko materiala). Elgoibar eta Mutrikuko institutuetan, Luzaro eskolan eta martxoaren 25ean udaletxe azpian egongo gara eta bertan ahalik eta material gehien lagatzea eskertuko genizuke. Horrez gain, herriko botiketan ere izango duzue medikamentuak uzteko aukera.

Bertan elkar ikusiko dugulakoan, eskerrik asko; bidaiaren bueltan izango duzue informazio gehiago.

Eskutik Eskura taldea eta Debako Gaztelekua

Eskola materiala: Koadernoak, boligrafoak, arkatzak, borragomak, zorrozkiak, arbeletarako klerak, kirol materiala...

Anbulatorio eta ospitalen horniketa: Parasetamola eta antzeakoak, tiritak, gasak, bendak, Betadine, erreduzentzako pomadak, konpresak, pardelak...

"Bidali SMS bat eta lagundu irabazten"